

Doktore berriak kontratatzeako deialdia

Uztailaren 13ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen “[doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte, doktore berriak kontratatzeako deialdia](#)”. Kontratu hauek “predok” eta “postdok” kontratuen arteko zubi-kontratuak dira, eta aurtengo apirila arte deialdia irekia egoten zen etengabe, baina Unibertsitateak horretarako diru-partida amaituta zegoela esanez, deialdia itxi zuen.

[LABek salatu zuen deialdia etetea](#), eta berriro martxan jartzea eskatu zuen. Alde horretatik, ondo ikusten dugu deialdi berria deitu izana, eta aurreko baldintzak hobetu direla: lehenago ardura partzialeko kontratuak ziren, eta hemendik aurrera ardura osokoak izango dira; lehenago bederatzi hilabeterako baziren, hemendik aurrera urtebetekoak izango dira, eta edonola ere ez dira praktika aldiko kontratuak.

Dena den, etorkizunean ez da beti irekita dagoen deialdia izango eta oraingoan **10 kontratu besterik ez dira esleituko**. Ikerketako Errektoreordeak adierazi du urtean bi deialdi gutxienez egongo direla. Horren harira, **LABek eskatzen du deialdiak maiz egitea eta hurrengo aurtenera ateratzea**, kontuan hartuta denbora luzean deialdiak itxita egon direla eta aurtenera tesi asko irakurtzen ari direla. Bestalde, **gutxienez, urteko aurrekontua mantentzea exijitzen dugu**.